



Kaixo adiskideok!

Bertan dugu datorren urteko apirilaren 16, 17 eta 18an Zaragozan egingo den "Gizarte Hezkuntza, duintasuna eta eskubideak" Gizarte Hezkuntzako Estatuko VIII Biltzarra, eta Elkargoan dagoeneko azken ukituak ematen ari gara dena behar bezala atera dadin.

Gure egunerokoan, pertsonekin batera egiten dugu lan eta, horren ondorioz, hainbat zailtasunekin topo egiten dugu esku-hartzean zehar agertu ohi diren sasiborondateei aurre egitean, eskaera lausoak berraztertzean, loturak ezartzean eta zirkulartasun betikotu horretan konfiantza harremanari eustekoan.

Egoera hobe bateranzko aldaketa prozesuak antolatzeke oztopo horiek guztiak gainditu behar direla eta praxiaren euskarri izango den oinarri teoriko on bat beharrezkoa dela jakinaren gainean, Estatuan egitear den topaketa hau aukera ezin hobea delakotan gaude, bai elkar aberasteko, lanbidearen birziklapenerako, gizarte hezkuntzako lankideen talde-hausnarketarako, bai eta gure esperientzia sorta zabaltzeko aukera bat gehiago izateko ere.

Gure begirada bertan jarrita eta jakinda zuetako lankide askok lanbidean jaso duzun jakinduria, sormena eta ilusioa zenbaterainokoa den, eskertu egin nahi dizuegu zuen lanean eman duzun guztia, eta gonbidatu egin nahi zaituztegu hitzordu honetan parte hartzera; bakoitzak ahal eta nahi duen neurrian (bertaratu gisa, laguntzaile gisa edo gaiak, posterrak edota esperientziak aurkeztuta). Ekarpene guztiek laguntzen dute harro sentiarazten gaituen lanbide hau ahalduntzen. Beraz, anima zaitetze ideiak partekatuz, lantegietan eta halakoetan parte hartzera eta, zalantza bat sortuz gero, jarri harremanetan Elkargoarekin eta ahalik eta lasterren konpontzen saiatuko gara.

Biltzarrari buruzko informazio guztia, baita bertan ekarpenak egiteko oinarriak ere, honako esteka honetan aurkituko dituzue:

<https://congresoeducacionsocial.org>

## GIZARTE HEZITZAILEEN ELKARGOEN KONTSEILU NAGUSIA



### **Gizarte Hezkuntzako Estatuko VIII Biltzarra Zaragoza 2020**

Gizarte Hezkuntzako Estatuko VIII Biltzarrerako izen-ematea modu egokiago egiteko gure elkarkideentzako antolatuko dugu. Lanean dauden elkargokideak talde tarifa egokiena da. Langabezia daudenentzako aukerakoa tarifa murriztua da

### **Gizarte Hezkuntza Nazioarteko Eguna 2019**

CGCEESek CEESAragonekin batera irailaren 28 DIES 2019 "Gizarte Hezkuntza: lanbidea eta etorkizuna" izenburuz Zaragozaan ospatu zuten. Hitzaldi, mahi inguru, elkarrizketa eta erakusketak egiteaz gain hiri horretan datorren urtean apirilaren 16tik 18ra burutuko den Gizarte Hezkuntza VIII Biltzarraren aurkezpena egin zuten.

### **Familia eta Haurren Zuzendaritza Nagusiko Zuzendariarekin bilera**

CGCEESek urrian Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioko Familia eta Haurren Zuzendaritza Nagusiko Zuzendariarekin bilera egin zuen. CGCEESen aldetik presidentea, presidenteordea eta Gizarte Hezkuntzako Estatuko VIII Biltzarreko presidentea bertaratu ziren.

**Gizarte Hezkuntzako Estatuko VIII Biltzarra** aurkeztu zuten eta, besteak beste, Biltzarrerako elkarren arteko lankidetzarako aukerak aztertu zituzten. Baita ere gure lanbidearen egoeraz, bereziki gizarte zerbitzu komunitarioetan eta familiak eta haurren zerbitzuetan egonkortze aldera hitz egin zuten.

### **UNED eta CCGCEES**

CGCEESek eta UNEDek ekainean Gizarte esku-hartzea Hezkuntza sisteman programa modularra eratzeko ituna sinatu zuten.

Programa modularrak bi diploma eskainiko ditu: Hezkuntza sisteman Gizarte Hezkuntza Unibertsitate Aditu Diploma 30 ECTS eta Hezkuntza sisteman Gizarte Hezkuntza programen diseinua, garapena eta ebaluaketa espezializazio Diploma 50 ECTS.

### **Estatuko Lan Publikoko Zerbitzuko ordezkariarekin bilera**

Gizarte Hezitzaileen Elkargoen Kontseilu Nagusiko (CGCEES gasteleraz) presidentek Estatuko Lan Publikoko Zerbitzuko (SEPE gasteleraz) Zuzendari Nagusiarekin eta Emplegu Politiketako Zuzendariorde Nagusiarekin ekainaren 24an bilera izan zuen.

Bilera horretan CGCEESek gizarte lan eta gizarte hezkuntzako enplegu talde 2824koaren azpiepigrafea berraztertzea eskatu zien, Gizarte Hezkuntza diplomatura eta gradua orain hainbat urtetan jardunean eta gazteriarren eta adin txikikoen babesa estatu mailako III Lan Hitzarmena kontuan izanda.

## GHEE-CESPVREN BERRIAK

- **Lanbidearen Sustatze eta Defentsa**

2019/09/09 Barakaldoko Udalako Baztekeria Prebentziorako Zebitzuko lizitazioan eskatzen ziren lanbide profilak desadostasuna erakusteko, Barakaldoko Udalako Gizartekintza zinegotzi eta Gizarteratze Teknikariari gutuna bidali.

- **Barneko Lana** (Gobernu Batzordea eta Lan Batzordeak)

**Etika eta Deontologia Batzodeako** lagunak uztailan eta irailan elkartu dira. Bilera ba-koitzean landu dena Elkargoko gizarte sareen bitartez informatu dugu.

**Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren Dekretuaren jarraipenerako Batzordeko** kideak irailan eta urrian batzar bana egin dute eta EDUSOko RESiren 29 zanakirako *"La actual ley vasca de servicios sociales. Universalización de servicios y consolidación de la atención socioeducativa y de los educadores y educadoras sociales en las respuestas a la ciudadanía"* artikulua idatzi.

2019/07/19 eta 2019/09/24an **Gobernu Batzordea** elkartu da.

- **Elkargoko Administrazioa**

**GHEE-CEESPVko Pribatutasun Politikarekiko onespena.** Elkargoaren pertsonal izaerako datuei buruzko pribatutasun politika onesteko zegoen elkagokide %80a dagoeneko emailaz egiaztatu du. Elkargaok dituen pertsonal izaerako datuak indarrean dagoen arautegiaren arabera tratatzeko Elkargoko Pribatutasun Politika onartzeko eskaria emailaz jasotzen duten elkagokideek ontza emateko eskatzen diegu.

- **Elkagokideentzako Zerbitzuak**

2019/09/30 "La Entrevistas Profesional" ikastaroa ez zen gauzatu talde bat osatzeko nahiko inskripzio ez zirelako lortu.

- **Instituzio Harremanak eta ordezkaritza (foroak, bilerak, ...)**

2019/06/26 Deustuko Unibertsitateko Gizarte Hezkuntzako Gradu Koordinatzailearekin bilera Elkargoko Batzordeko kide batek bilera izan zuen 2019-2020ko ikasturtean jarduerak planifikatzeko lankidetzaren itunaren arabera.

2019/07/08 HEFA Fakultateko Dekanoarekin eta Gizarte Hezkuntza Gradu irakasle batekin Elkargoko Batzordeko bi kide bilera izan zuten ikasturtekoa prestatzeko.

- **Jardunaldi eta mintegietan parte-hartzea**

2019/10/02 Gizarte Hezkuntzaren Nazioarteko Eguna (GHNE) ospatzeko HEFA Fakultateak, Deustuko U.k eta Elkargoak "Haur, nerabe eta gazteekin Gizarte Hezkuntza esku-hartzea Gipuzkoan" HEFA Fakultateko Areto Nagusian Donostian antolatu zuten.

Egun berean "Gizarte Hezkuntza genero kontua" jardunaldia Gasteizen Elkargoak antolatu zuen.

Deustuko Unibertsitateak, Deustuko U.ko Gizarte Hezkuntzako ikasleen elkarteak eta Elkargoak GHNE ospatzeko "Sarean eraikitzen: inklusioa, komunikazioa eta teknologia" jardunaldia antolatu zuten Deustuko Unibertsitateko Bilboko eta Donostiako Campusetan.

Leioan UPV/EHUko Bilboko Hezkuntza Fakultateko irakasleak eta ikasleak antolatuta GHNEa ospatu zuten eta Elkargoa gonbitatuta "Dignidad y Derechos Humanos" hitzaldia gure kide batek emanda parte hartu zuen.

**LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA****GIZARTE HEZKUNTZA ERALDATZAILE BATEN ALDE. GENERO IKUSPEGITIK GIZARTE ESKU-HARTZE FEMINISTA ETA SEKZIO ARTEKORA.**

Aldarrikapen feministei esker, historiako une honetan nolabaiteko garrantzia ematen ari zaio genero ikuspegiari gizarte esku-hartzean, eta gizarte hezkuntzaren jardun zehatzean ere bai. Eskatu egiten da diru-laguntzetan, zeharkakotu egiten da. Baina, benetan gauzatzen da ala proiektu batean idatzi eta kaxoi batean gordeta geratzen da?

Hausnartzeko gauza interesgarria izango litzateke hori, ez dut, ordea, horretan sakondu nahi; izan ere, feminismoaren borroka eta eskaerak izan direnak oinarri hartu eta instituzioek agerian jarri eta saldu dezaketen kontzeptua baita genero ikuspegia deritzona. Ez dira urte asko Euskadin Gizarte Esku-hartze Feminista deritzonari ahotsa eta indarra ematen hasi zaiola; begirada honek kritikoki aztertzen du errealitatea, eta pribilegio eta zapalketa ardatzak aztertzen ditu. Bertan kokatzen da Gizarte Hezkuntza Eraldatzailea.

Gizarte Hezkuntzako profesional garen aldetik, agente sozializatzaile postuak betetzen ditugu eta, zeregin horretan, modu normalizatzailean eragiten dugu, edo pertsonengan eta kokatzen gareneko sistemetan eraldaketak sustatzen ditugu. Horretarako, nahitaezkoa zaigu hausnarketarako eta analisirako beta hartzea eta baterako prestakuntza jasotzea; baina, tamalez, ez dugu halako baliabiderik. Gehienetan, zaugarritasun larriak dauden egoeretan esku-hartzean, larritasuna garrantziaren gaintik jartzen da.

Nola islatzen da feminismoa hezkuntza harremanean? Gure lanaren xede diren pertsona guztiak genero arauen barruan kokatzen direla uste al dugu? Bi generoetako batekoa dela? Zein tresna ditugu estereotipo horietan ez erortzeko eta araua ez betikotzeko?

**HAUSNARTU ETA KONZIENTE EGIN EZEAN, EZ DA IKUSTEN. IKUSTEN EZ DEN HORRETAN, EZ DA ESKU-HARTZEN.**

Munduari nola begiratzen diogun, horrek esango digu nola jokatu eta nola horretan eragin. Horregatik, arestian eginiko galderei eta beste askori erantzuten hasi aurretik, nahitaezkoa da norbere buruari begiratzea, berrikustea eta heziketan jaso dugun eskema bitarra desikastea. Genero-sexu sistema eta desioa ulertzeko dugun modua zabaldua, harremanetarako dugun modua ere aldatuko dugu. Horrela, berriro ere baieztatu ahalko dugu indarkeria matxistek zapalkuntza sistema bitar batean dutela jatorria eta begirada zabaldu ahalko dugu konturatzeko, emakumeak zapaltzeaz gain, genero arautik irteten diren subjektu guztien gainean eragiten duela bere indarra eta indarkeria.

## LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA

## ARAUA

## KANPOAN GERATUAK

SEXUA	Emea	Harra	Sexu artekoa
GENEROA -Identitatea -Espresioa	Emakume femeninoa	Gizon maskulinoa	Transa, trabestia, transgeneroa, draga, queerra, gizon femeninoa, emakume maskulinoa...
DESIOA	Heterosexualitatea		Lesbiana, gaya, bisexuala, poli-maitalea, asexuala...

Aldartek HerFer-en (2018) eta Coll-Panas oinarri hartuta (2013) egindako koadroa

Aurreko eskeman ikus daiteke, zapalketari begirada soziologiko bat eginda, zein diren arauaren barruan eta arautik kanpo geratzen diren errealitateak. Genero-sexu zioengatik baztertuta geratzen direnek indarkeriak jasan ditzakete eta, ondorioz, zaurgarritasun egoeran daude. Indarkeria horiek zuzenak izan daitezke, fisikoki edo emozionalki eragindakoak; baina omisioagatiko indarkeria ere kontuan izan behar dugu, gizarte esku-hartze zerbitzuetan sarrien gertatzen dena baita.

Borondatez izan ala ez izan, izatearen ukapenak betikotu egiten du zaurgarritasun egoera, ez baitzaio heltzen ez haren espezifikotasunei ez eta jasandako indarkeriak konpontzeari ere. Ez da horretaz galdetzen, eta denok arau bitarrear sartzen garelako egiakotzat jotzen da. Horrela, zaurgarritasun egoeran dagoen pertsona egiten dugu erantzule, eta sexu edo genero disidentzia berak egin dezala eskatzen diogu. Aurretik izango zituen jada bazterkeria egoerak eta, ziur aski, beldur izango da bere prozesuan ondoan duen langilearekin ere errepikatuko ez ote den; izan ere, langile hau botere handiagokotzat joko du, bai eta harreman horizontal batean lan egiten denean ere.

Gizarte hezitzaile garen aldetik, agente sozializatzaileak gara. Beraz, nire aburuz, hezkuntza erantzukizunak berarekin dakar gai horri heltzea, galderak eginez, elkarrizketen bidez, edota arauaren aurrean disidente diren etsenplu edota ekintzak aipatuz. Horrela, bestelako izateko aukerei lekua egiten ahaleginduko gara, aurrean dugunak konfiantza hartu eta ikus dezan badugula gaitasuna beraren espezifikotasunei heltzeko, erreferentziazko hezkuntza taldeak inolako epaiketa egingo dion edo baztertuko duen beldur izan gabe. Ikaskuntza handiena imitazioaren bitartez egiten bada, izan gaitezen transformazio eta aldaketa eragile.

**GAUZA PERTSONALA GAUZA POLITIKOA DA. GAUZA PROFESIONALA ERE BAI.**

Ez dugu jarraitu nahi inertzia honetan; izan ere, horrek cisheteronormatibitatera eramaten gaitu eta isileko sexismo eta matxismoa betikotzen du. Ez dugu gizartearen bazterretako pertsonen, hain zurrinak diren eraikuntza hauetan sartu ahal izateko, homogeneouski egokitu daitezen bultzatu nahi. Pentsatzen dugu hegemonikoak boterea ematen duela eta, beraz, horrekin bat egiteak gauzak errazagotu eta zaurgarritasunak murrizten dituela. Horren adi-

## LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA

bide dira gizarte eta lan esku-hartze klasikoak, zeinetan neskak sukaldean, zaintzetan eta ile-apainketan prestatzen diren, eta mutilak orga-eramale, igeltsero eta soldatzailerako. Non geratzen da hor alde subertsiboa? Esku-hartze hori erabiliz, ez al gara, bada, sistema bitarraren jokoa jarraitzen ari? Zein dira sustatzen ari garen rolak?

Hezkuntza-taldeen partaide gehienak pertsona zuriak, unibertsitate ikasketadunak eta heterosexualak dira (edo hori esaten da). Gainera, zaintza lanak nagusiki emakume gazteek egiten dituzte eta zuzendaritza lanak gizon helduagoek. Horrela dira gauzak: gizarte esku-hartze feministatik lan egiteko, beharrezkoa da norbere gorputz/pertsonan zehar gurtzatzen diren pribilegio eta zapalkuntza elkarguneak zein diren jakin eta bereganatzea. Horrela baino ezingo dira loturak irauten duen bitartean eta artatzen ditugun pertsonekin kontzienteki joko positiboan aritu. Horrela sortuko dira gizarte eraldaketa sustatu eta, egunerokoaren ekintzen bitartez, desio eta genero-sexu sistema bitarraren arau zurrunik dinamitatuko dituzten egitura, dinamika eta harremanak.

Feminismoak eta sekzio artekotasuna oinarri hartuta egin nahi dugun lan. Eragile iraultzaile izan nahi dugu, gizarte iruditerien zabaltzaile, pertsona guztiek izan dezaten gizarte honetan bere lekua, banakako eta taldekako askatasunerako eskubide eta guzti. Horretarako, beste "zer" eta beste "nola" batzuk sustatzen ditugu, artatzeen kalitatean eta ondoren ditugunen prozesu pertsonalizatuetan inpaktua dutenak, eta lotura eta egunerokoa airtortzen dugu gizarte aldaketarako erreminta politiko gisa.

Udane Hermosilla Fernandez (HerFer)  
Gizarte Hezitzailea

## BIBLIOGRAFÍA

- Ayuntamiento de Gasteiz** (2018): Desirak plazara. Diagnóstico sobre las realidades de la población LGTBI en Vitoria-Gasteiz. Ayuntamiento de Vitoria Gasteiz.
- Butler, Judith** (2001): El género en disputa. El feminismo y la subversión de la identidad. Ed. Paidós, México.
- Cabrera, M<sup>a</sup> Victoria** ( ) : Educando Queer: el educador/a social como agente de subversión de género en la escuela. En Revista Iberoamericana de Educación /Revista ibero-americana de Educação (ISSN: 1681-5653)
- Coll-Planas, Gerard** (2010): La voluntad y el deseo. La construcción social del género y la sexualidad: el caso de las lesbianas, gais y trans. Ed. Egales, Madrid.
- Coll-Planas, Gerard; Vidal, María** (2013): Dibujando el género. Ed Egales. Madrid.
- Dominelli, Lena** (2002): Feminist social Work Theory and Practice. Palgrave, London
- Dominelli, Lena** (2002): Anti Oppressive social Work Theory and Practice. Palgrave, London.
- Esteban, Mari Luz** (2004): Antropología del cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio, Barcelona, Edicions Bellaterra.
- Garaizabal, Cristina** (2014): "Diversidad sexual e identidad de género en el feminismo y en las políticas para la igualdad", conferencia dada en el Seminario Diversidad sexual e identidades de género en las políticas para la igualdad. Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.
- Harding, S.** (1987): Introduction: Is There a Feminist Method?. IE Feminism and Methodology, 1-14. Indiana University Press, Indianápolis.
- HerFer, Udane** (coord.) (2018): Estrategias para hacer frente a los delitos de odio por orientación sexual e identidad de género, una mirada global. Aldarte. Bilbao.
- McPhail, Beverly** (2008): Questioning Gender and sexuality Binaries.What Queer Theorists, Transgendered Individuals, and Sex Reserchers Can Teach Social Work. Journal of Gay, Lesbian social Service.
- Mujika, Inmaculada** (coord.) (2013): Lesbianas con recursos: Una mirada al acceso y al uso de los servicios sociales en la CAE por parte de las mujeres lesbianas. Beca Emakunde.

**ELKARGOAREN JARDUNAK****GIZARTE HEZKUNTZAREN MUNDU EGUNA GIPUZKOAN**

Urriaren 2an, Gizarte Hezkuntzaren Mundu Eguna ospatzen dela eta, Gizarte Hezitzaileen Euskal Herriko Elkargoak, EHUko HEFArekin eta Deustuko Unibertsitatearekin batera, jardunaldi bat burutu zuen Gizarte Hezkuntzako irakasle eta ikasleentzat. Jardunaldi honen edukia "Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea Haurtzaroan, Nerabezaroan eta Gaztaroan" lemapean jaso zen. Bertan, Administrazio Publikoko ordezkariak, bi unibertsitateotako irakasleak eta Gizarte Hezkuntzako lurralde historikoko profesionalek hartu zuten parte.

GHEE-CEESPVko Batzordeak oso balioespen ona egin du jardunaldiaz, bai parte-hartze kopuru oparoagatik (12 lagun inguru), bai saioaren eduki teoriko-praktikoagatik ere.

Jardunaldiak bi lerro jorratu zituen: bata haur, nerabe eta gazteekin Gipuzkoan burututako Gizarte Hezkuntzari buruzko esperientziak kontatu, edukiak transmititu eta hausnarketa egitean zentratua; eta bestea, bertaratuen parte-hartzea sustatu zuena, lanbidea ikusgarri eginez.

Lehenengo lerroari dagokionez, edukiak egituratzeko ibilbide bat egin zen Gizarte Hezkuntza ordezkatuta dagoeneko maila administratiboetan zehar, Gipuzkoako Haur eta Nerabeentzako Babes Sistematik hasita. Ondoren, Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistemari (biak ere Foru Aldundiaren ardurapekoak) heldu zioten; eta amaitzeko, Gizarte Zerbitzuetan burututako esku-hartzea jorratu zuten. Horietan guztietan, Administrazio Publikoko profesionalek (Patxi Agiriano eta Mila Holgado) aurkezpen bat egin zuten: gizarte hezitzaileak beren zerbitzuetan duten kokapena zein den azaldu zuten. Horretaz gain, profesional batzuek ere (Noelia Moyano, Idoia Mariñelarena eta Javier Jimenez) aurkezpen bat egin zuten, Gizarte Hezitzailearen zeregin teoriko eta praktikoan zentratuagoa.

Haur, nerabe eta gazteekin hainbat administrazio-egituratan profesionalek burututako lana zein den azaldu aurretik, EHUko Iñaki Markok, Deustuko Unibertsitateko Rosa Agundezek eta GHEE-CEESPko Aitor Avilak, hausnarketa bat egin zuten Gipuzkoan Haur, Nerabezaro eta Gazterian gizarte eta hezkuntza esku-hartzeak izan ditzakeen zenbait erronkari buruz.

Parte-hartzeari eta lanbidearen ikusgarritasunari dagokionez, modu lasaiagoan, atsedeenaldi-kafe tartean ekintza bat burutu zen, parte-hartzaile guztiek horma-irudi bat egin zezaten, ikur edo hitzen bitartez Gizarte Hezkuntzarako hurbilketa bat islatuko zuena.

Azkenik, Jardunaldiari amaiera emateko, Haurtzaro, Nerabezaro eta Gazterian burututako ibilbidea azaldu zuten Ander Juaristi, Estitxu Arnaiz eta Raul Monferrer gizarte hezitzaileak. Horiek guztiek euren esperientzia pertsonalak partekatu zituzten bertaratuekin eta euren prozesua eta lanbidearekiko konpromisoa balioetsi zuten. Horren ostean, GHEE-CEESPko presidentek Jardunaldia itxi zuen, egunean gertatutakoaren laburpen bat eginda.

## INTERESGARRIKOAK

EDUCACIÓN SOCIAL

SONIA FUERTES LEDESMA  
JOAN SEGARRA I FERRAN (COORDS.)**UNA MIRADA  
AL TERCER  
SECTOR SOCIAL**


EDITORIAL GOC

7h

**UNA MIRADA AL  
TERCER SECTOR  
SOCIAL.** editorialUOC. Educación so-  
cial.

El libro ofrece un panorama general acerca de lo que entendemos por tercer sector social a través de un recorrido por diferentes nociones de actualidad: la economía social, la

colaboración publico-social, la perspectiva de género en las organizaciones, la gobernanza y articulación del ámbito o el propio concepto de acción social y su necesario correlato en relación con la función de representación o la incidencia pública y política.



*Martínez-Otero, V.*, **Modelos de intervención socioeducativa.** Serie: Campus n. 85, Madrid, Editorial CCS, 2018, 143 p. **SE PUEDE SOLICITAR EN SIIS**

En el texto se incluyen relevantes fundamentos teóricos de alcance práctico sobre el proceso de intervención socioedu-


cativa, y por ello se repasan numerosos modelos, pero también se ofrecen claves sobre temáticas como la comunicación y el ambiente, de gran trascendencia en la praxis educativo-social.

REVISTA  
DE EDUCACIÓN  
SOCIAL

**La Educación Social en la segunda generación de leyes de servicios sociales.** RES N° 29. CGCEES

REVISTA  
DE EDUCACIÓN  
SOCIAL

**La actual ley vasca de servicios sociales. Universalización de servicios y consolidación de la atención socioeducativa y de los educadores y educadoras sociales en las respuestas a la ciudadanía.** Comisión del GHEE-CEESPV en RES N°21 La Educación Social en la segunda generación de leyes de Servicios Sociales.



**Educación Social y cultura de Paz**  
**Revista Educación Social.**N° 72 Fund Pe-  
re Tarrés.

**URRENGO BOLETINETAN SARTZEKO PROPOSAMEN ETA IRADOKIZUN  
ceespv@ceespv.org RA BIDALI AHAL DITUZUE. ERA BEREAN, ZUEN INTERESEKOA  
DEN EDOZEIN ESPARRUTAN PARTE HARTZEKO GUREKIN HARREMANETAN JAR  
ZAITEZTE.**